

**Intxaurrondo**

**Ahots gazteak uhinetan**

**Irailaren 7an Otxoki Komunikazio Elkarateak irrati tailer berria inauguratu zuen Buztintxulo kalean. Irrati tailer honetan gaztetxoak dira protagonista eta gai askori buruzko saioak entzun daitezke.**

**Unai Zubeldia**


Otxoki Komunikazio Elkaratea duela 12 urte inguru hasi zen hainbat ekintza antolatzen, eta lan asko egin ostean, duela bi urte hasi ziren irrati estudio berria jartzeko ideia aztertzen. Ideia hark aurrera egin eta otsailean egin beharreko frogak egin ostean, aurreko larunbatean Buztintxulo kaleko egoitza zabaldu zuten. Otxokiko kide Josu Lizasok adierazi digunez, "ez da erraza izan irrati tailerra sortzea. Udalak eta Foru Aldundiak dirulaguntzak eman dizkiguten arren, askoz diru gehiago behar da horrelako egitasmo bat abian jartzeko.

*Erakundeek dirulaguntzekin gastuen %10 edo %20 inguru ordaindu ahal izan dugu. Hala ere, denbora luzez lanean aritu ondoren, proiektua aurrera ateratzea lortu dugu".*

Josuk aipatu digunez, Otxoki irradian, 11 eta 16 urte bitarteko neska-mutil gazteak, ikastaroak egin ostean, mikrofono aurrean aritzen dira irakasleek lagunduta. Nahiz eta esatariak gazteak diren, adin guztietako entzuleei zuzendutako programazioa egin nahi da, mota guztietako gaiak jorratuz. Esaterako, sukaldaritzari buruzko irratsaioa, ume-

entzako saioak, gizarte saioak, kirol emanaldiak, magazinak... entzun daitezke Otxoki irradian.

Datorren urtean unibertstatetako ikasleentzat ere ikastaroak egingo dituzte Otxokin. Josuk esandakoaren arabera, ikastarootan parte hartzen dutenek, mikrofono aurrean hitz egiteaz gain, lan teknikoak eta kontrol lanak egiteko gaitasuna izan dezaten nahi dute: "Irradian hitz egiten ikasteaz gain, matxurak konpontzen, funtsezko programa batzuk erabiltzen, kableak ondo jartzten... irakatsiko diegu".



**Josu Lizaso: «Adin guztietako entzuleentzako irratiak da gurea»**


**Suak itsuentzat**

Otxoki irrati tailerra jaioberria da, baina hala ere, saio bereziak egiten ahalegintzen ari dira. Aste Nagusian, adibidez, su artifizialak eman zituzten Londres Hoteletik, itsuei zuzenduta. Itsuak su artifizialen ezaugarriez jabetu zitezten esatariek suen kolorea edota itxura azaltzen zuten. Gainera, itsuen elkarteko kideekin hitz egin dute, beraiek ere irratiak erabiltzen ikas dezaten. Bestalde, azken bi igandeetan estropadetan izan dira Otxokikoak, eta bi lagun gaztek zuzenean eman zuten Kontxan gertatutakoaren berri. Josuk nabarmendu digunez, "apurka-apurka gauza berriak eskaini nahi dizkiegu entzuleei".

Badakizue, beraz, sintonia berria dugula dialean, FM-ko 107.7an, hain zuzen.

 **HONTZA ELKARTEA**  
Eliza kalea 5 • Tel.: 943-46 82 37 • LOIOLA auzoa, Donostia

**El Andorrano**  
1860tik zurekin  
Alkandorak • Lentzeria  
Garibai, 11 • DONOSTIA - Tel.: (943) 420607

 **maizpide** 02/03 IKASTURTEA  
**IKASTAROAK URTE OSOAN**  
• **BARNETEGIAN:** Egunean 6 klase eta ekintza osagarriak  
**FAMILIA EUSKALDUNETAN EGOTEKO AUKERA**  
• **BESTE BATZUK:** Egunean 6 klase eta ekintza osagarriak  
- 2 ordu egunean  
- 4 ordu astean (larunbatetan)  
- BAKARKAKO IKASTAROAK  
**MAILA GUZTIAK**  
DEITU ETA EMAN IZENA  
Tel.: 943-889231 • Faxa: 943-889232  
HABEren diru-laguntzaz E-posta: lazkao@maizpide.com